



ADUNAKO UDALA
(GIPUZKOA)

ADINEKOEK JASATEN DITUZTEN LAPURKETA ETA IRUZURRAK

Asteasuko Udalak Ertzaintzarekin batera hitzaldi bat antolatu du adineko jendeak jasaten dituen lapurketa eta iruzurren inguruan. Bertan modu dinamiko batean argituko dituzte zeintzuk diren eta nola ekidin daitezkeen. Hitzaldia auto-babeserako interesgarria da.

Hitzaldia Asteasun denez eta garraioa aukerarik ez duten adinekoentzat taxia jarriko du Adunako Udalak herrigunetik. Horretarako izena eman beharko da Udaletxera deituz edo gerturatuz. Garraio propioa edukita ez dago izena eman beharrik eta egunean bertan hitzaldira zuzenean joan daiteke.

DATA:

Apirilak 22, Asteazkena 17:00etan Asteasuko Udalean.

(Garraiorako izen emateko epea Apirilak 20 Astelehena)

GOROSTIDI HARRIA

Gogoratu igande honetan 18:00tatik aurrera GOROSTIDI HARRIaren edizio berri bat izango dela Adunako Frontoian. Aurten 10 harrijasotzaile izango dira lehian 155 kiloko harri errektangular zaharrarekin 5 minutuko tanda bakarrean. Betalde norbaitek 185 kiloko zilindro zaharra esku bakarrez jasotzen badu sari berezia izango du.

Herriko Plaza 1 - 20150 Aduna

Tel. 943 69 25 71 • Fax 943 69 02 62 • E-mail: aduna@udal.gipuzkoa.net - www.aduna.net



ADUNAKO UDALA
(GIPUZKOA)

UDALEKU IREKIETAN BEGIRALEAK AUKERATZEKO DEIALDIA

Aiztondo Zerbitzuen Mankomunitateak, Ekainaren 25tik

uztailaren 24 bitartean burutuko den Udaleku Irekietarako begiraleen hautaketa deialdia egiten du.

Baldintzak ondorengoak dira:

- 18 urte beteak izatea edo 2015. urtean betetzea
- Euskara ondo menderatzea.
- Azterketa teorikoa egitea.

Hautaketa prozesuan baloratuko dira:

- Denbora Libreko begirale edo/ eta zuzendari titulua
- Heziketarekin zerikusia duten ikasketa, ikastaro, monografiko,
- Esperientzia antzeko lanetan.
- Langabetu edo ikaslea izatea
- Alkiza, Aduna eta Larraulen erroldatua egotea.

IZENA EMATEKO EPEA

Apirilaren 21a

AZTERKETA EGUNA eta LEKUA

Apirilaren 28a. Aiztondoko bulegoetan (Muñoa kalea, 36behea. Zizurkil)
arratsaldeko 19:45etan

INFORMAZIO GEHIAGORAKO

Itsaso: Tf: 943 693930 (goizez)

JAI BATZORDEKO BILERA

Pixkanaka badator udara, baita herriko festak ere. Ondorioz Jai Batzordearen lehen bileran parte hartzeko deialdia egiten dugu. Denon parte hartzea beharrezkoa da. Animatu!

APIRILAK 16, OSTEGUNA. 20:00tan KULTUR ARETOAN

Herriko Plaza 1 - 20150 Aduna

Tel. 943 69 25 71 • Fax 943 69 02 62 • E-mail: aduna@udal.gipuzkoa.net - www.aduna.net